

Orotariko Euskal Hiztegiaren lekua Euskal Ikasketetan

Gabriel Fraile, Elizabet Kruzeta, Ane Loidi, Ainhoa Otamendi &
Iñaki Segurola

Euskaltzaindia

Laburpena

Artikulu honek Ibon Sarasolak zuzenduriko Orotariko Euskal Hiztegia du mintzagai: haren historia, prestalana (euskararen corpus zabal eta fidagarri bat osatzea bereziki), izaera eta egitura, izan dituen argitaraldi guztiak ere kontuan hartuz. Euskal ikasketetan izan duen berebiziko eragina ere aztertzen du, eta azterlan deskriptibo nahiz proposamen normatiboetarako ezinbesteko oinarri bihurtu dela nabarmentzen.

0. Atarikoak

Ibon Sarasolaren omenezko obra batean ezin baztertuzko leku bat behar zuen izan *Orotariko Euskal Hiztegiak* (aurrerantzean OEH). Sarasola irakasleak jakin zuen Koldo Mitxelenak euskal ikasketetara ekarritako ja-kinduria eta metodologia praktikara bideratzen: hari esker egin da inoizko euskal hiztegi osatuena eta eraginkorrena, behar-beharrezko kalitate zientifikoarekin.

Sarasolaren zuzendaritzapean urteetan lan egin dugunon esker onezko erakusgarri bat da honako ekarpen hau.

1. OEHren iturriak eta corpusa

Hamasei liburukiko lan mardula da OEH; euskal literatura-tradizioaren erakusle den hiztegi historiko deskriptiboa, 143.000 sarrera inguruz osatua. Gaur era bateko edo besteko corpusetan oinarriturik egin diren hiztegi, gramatika edo filologia eta hizkuntzalaritza lanak ohiko badira ere, 1987an, 1. liburukia kaleratu zenean, bestelakoa zen egoera. Are bestelakoagoa, 1984 inguruan, Mitxelenaren gidaritzapean, helburu horrekin euskal literatura-tradizioko testuak banan-banan digitalizatzeko lanari ekin zitzaionean.

Hortaz, Hiztegiaren corpusa osatzeko, euskaraz idatzitako lehenengo idazkiekin hasi eta 1970 arte argitaraturiko testuen hustuketa handia egin

zen:¹ XIX. mendea arteko ia lan guztiak, XIX. mendeko egileetan ere ia denak eta XX. mendeko emaitzen erakusgarri zabala.² Guztira, 800 egile inguru autoritate gisa aipatuak.

Informatikaren hastapenetan, hiztegi sarrerak prozesatu eta sailkatzeko orduan ere aitzindari izan zen proiektua. Teknologiaren erabilera horrek aukera eman zuen corpusa goitik behera eta zirrikiturik utzi gabe ustiatzeko eta hiztegia egiteko ezinbesteko lanabes izango ziren testu antolatuak (konkordantziak) eratzeko.

Baina erabili ziren baliabide teknikoek baino, aipaturiko corpusaren erabilerak ekarri zuen OEHren berritasunetako bat. Aurreko garai eta mendeetako hiztegi gintzari begiraturik, Duvoisinen, Maurice Harrieten eta Azkueren hiztegiek eta, izenak berak iradokitzen duenez, *Diccionario Retana de Autoridades del Euskara* (aurrerantzean DRA) hiztegiak ere jaso zituzten euskal testuetako adibide eta lekukotasunak. Horietan guztietan, ordea, ez dago, inola ere, hustuketa sistematikorik, ez eta euskal literatura-tradizio osoaren islarik. OEH euskal literaturako tradizioan erabilitako hitz guztien testigantza jasotzeko asmoarekin sortu zen, bide horretan garbizaletasunari eta idealizazioei, kolore, maila edo jatorriari buruzko aurreiritziei amore eman gabe. Hori dela eta, hango eta hemengo hitzek eta esapideek, jasoenek eta apalenek, jatorrenek eta sasikoenek, dotorenek eta xumeenek, denek izan dute dagokien lekua eta trataera bilduma honetan.

Literatura-tradizioko testuez gain, beste hainbat lanek osatzen dute Hiztegiak biltzen duen altxorra; hona horietan aipagarrienak: J. Arzamendik bildu zituen Erdi Aroko testuetako euskal hitzak, esaldi eta testu laburren bildumak (*Textos Arcaicos Vascos* (Mitzelena 1964) eta *Contribución al estudio y edición de textos antiguos vascos* (Sarasola 1983) besteak beste), hainbat gramatikariren aipuak, aurreko mendeetako hiztegiak (Landucci, S. Pouvreau, Martin Harriet, Larramendi, Añibarro, Urte, Duvoisin, Maurice Harriet, Azkue, DRA) eta XX. mendeko zenbait eskualdetako hiztegi dialektalak.

Zer esanik ez, ezinbestekoa zen horrelako bilketa eta sintesi lana egitea euskara batu estandarren hiztegia eta gramatika oinarri sendoen gainean finkatzeko zereginari heldu aurretik, eta ildo horretatik, OEHko datuak arlo bi horietako araugintzan eginiko azterketa eta saio garrantzitsuenen nahitaetzko abiapuntu eta gidari bilakatu dira azken urte hauetan. Horien artean ezagunenak ditugu *Euskal Gramatika: Lehen Urratsak* (EGLU I-VII)

¹ Hasiara-hasieran sartu gabe utzi ziren testu garrantzitsu batzuk geroago gehitu ziren, behe-rago azalduko dugun bezala.

² Corpusean erabat nahiz zatika husteriko testuen berri, Hiztegian «Relación de textos despojados exhaustivamente» izeneko atalean jasorik dago (edizio elektronikoan «testu zerrenda» loturaren barnean) eta aipatzen diren liburu guztien erreferentziak, berriz, «Referencias bibliográficas» atalean bilduak («erreferentzia bibliografikoak» edizio elektronikoan).

(Euskaltzaindia 1985-2011) eta *Euskaltzaindiaren Hiztegia* (Euskaltzaindia 2012).

Filologiaren alorrean ere berebizikoa izan da OEHren eragina testu zahar eta klasikoen argitalpen kritikoak prestatzeko orduan, eta hizkuntzalariei ere aihotz zorrotza eskuratu die etimologiaren eta aitzin-euskararen ikerketen oihan sarrian barrena bide berriak ireki ahal izateko. Horren adibide esanguratsuen, 2010ean Euskaltzaindiaren ekimenez abiatu zen «Euskal Hiztegi Historiko Etimologikoa» egitasmoa.

Azkenik, ezin utzi aipatu gabe OEHko informazioaren argitara urtu eta desegin direla hizkuntzari buruzko hamaika mito eta uste ustel, urteetan eta funts handirik gabe, han eta hemen, euskara zuzen eta jatorraren eredu barkatzat zabaldu direnak. Era berean, uste ustel horiek zirela eta, eredu horiek bezain zuzen eta eskubide osoko ziren hitz, esapide eta joskerak debeku horretatik atera ditu OEHk.

2. Hiztegi sarreren egitura eta antolaketa

Goian aipatu dugun corpus handi horretan dagoen guztia hiztegi eran antolaturik eta kontsultarako erabilgarri ematea izan da OEHren ekarpen handia. Adiera, azpiadiera, azpisarrera eta gainerako sailen bitartez jaso da hitz bakoitzaren historia, beti corpusean bilduriko guztiaren berri emanaz. Corpuseko adibide guztiak eta hiztegiileen lekukotasun guztiak hartu dira kontuan hiztegi sarrera bakoitza antolatzerakoan. Sarrera guztietan ematen da hitza erabili duten autore guztien berri, hitza edo adiera jakin bat erabat orokorra denean, eta hala aditzera ematen denean, izan ezik; atal berean adibide gehiegi dagoenean edo testuinguru errepikakorrak direnean, *v. tbn.* («véase también») laburduraren ondoren adibideen artean ageri ez diren autoreen erreferentziak gehitu dira. Hitz bakoitzaren erabilera arruntenetik bakan edo berezienerainokoak jaso dira, guztiak kronologikoki antolaturik.

Antolaketa horretan, hitz baten aldaera guztiak hiztegi sarrera berean jaso dira. Aldaera fonetiko guztiak sarrera berean biltzea gaur logikoa eta arrunta iruditzen bazaigu ere, molde hori ez zen, inola ere, ohikoena OEHren aurreko hiztegietan. Hainbat euskalkitako aldaerak jaso arren, XIX. eta XX. mendeetako hiztegiileen bestela jokatu zuten: aldaera bakoitza sarrera bereizian ematea izan da OEH aurreko hiztegiileen bidea. Zalantzarik gabe, lan bikaina den eta euskal letretan eragin handia izan duen Azkueren hiztegiak berak, esaterako, *barri / berri*, *garri / gerri*, *bost / bortz / borz* sarrerak zein bere aldetik ematen ditu, batetik besterako bidalketarik ere egin gabe. Ildo berari jarraitu zion, neurri batean, Azkueren lana osatzeko asmoz argitaratu zen DRA hiztegiak ere.

Hona, beraz, OEHko sarreren antolaketa:

2.1. *Burua*

Sarrera bakoitzean, aldaera bat hartu da nagusitzat,³ eta aldaera hori eman da buruan lehenengo tokian. Aldaera nagusi horren ondoren jarri dira, buru berean, gainerako guztiak: nagusia letra beltzez nabarmendurik eta besteak beltzez eta etzanean. Aldi berean, bigarren mailako aldaerak, hurrenkera alfabetikoan, dagokien lekuan ere jaso dira, sarrera nagusirako bidalketak eginaz. Sarrera nagusian, aldaera bakoitzaren ondoan, Azkueren hiztegiak eta gainerako hiztegi dialektalek ematen dituzten euskalki markak gehitu dira parentesi artean, eta horien ondoan, aldaera hori jaso duten hiztegiileen zerrenda. Buruaren amaieran, *Ref.* laburduraren ondoren, euskalki markak txertatzeko erabili diren lekukotasunen berri ematen da.

2.2. *Adiera nagusia*

Atal honetan, sarrerako buruaren gaztelaniazko ordaina ematen da lehenengo lekuan, eta ondoren, buruan aipaturiko hiztegiileen aipuak. Gaztelaniako ordaina behean jasotzen diren adibideek erakusten duten erabileran oinarriturik ematen da. Definizioen edo ordainen ondoren, adierari dagozkion literatura-corpusetik ateratako adibideak datoz, dataren araberrako hurrenkera.

2.3. *Beste adierak eta azpiadierak*

Hitzaren beste adierak, hiztegi gintzan ohitura den bezala, zenbaki batez adierazten dira, eta azpiadierak (esanahiaren aldetik nolabaiteko ñabardura bat erakusten dutenak) laukitxo batez edo (bereizkuntza txikiagoa denean) biribiltxo batez. Beste adiera eta azpiadiera hauen segidan ere, autoreen adibideak jasotzen dira.

Batzuetan, gramatikaren aldetik kidekoak diren adierak atal berezietan sailkatu biltzen dira: I (Sust.), II (Adj.)...

2.4. *Azpisarrerak*

Esapideak, hitz elkartuak eta kolokazioak sarreraren azken atalean ezartzen dira. Letra larrizko izenburu baten ondoren, buru nagusian ematen den antzeko informazioa ematen da hemen ere: erdal ordaina, hiztegiileen aipa-

³ Kasu batzuetan, sarrera nagusitzat forma bakarra aukeratzeko zailtasunak izan direnean, aldaera bi eman dira maila berean.

menak, adibideak, adierak eta azpiadierak (zenbakien ordezkariak a, b, c... letrak erabiliz kasu honetan).

2.5. Tr., Gram. eta Etim. atalak

Tr. laburduraren ondoren, hitzaren edo adiera jakin baten edo aldaeren erabileraren deskribapen bat (bai historiaren, bai geografiaren aldetik) ematen da, corpuseko emaitzetan oinarritua; irakurleari gero adibideetan emango zaion informazioa laburki aurkezteko modu bat da.

Zenbait sarreratan gramatikari buruzko oharrek gehitzen dira (*Gram.*), bai eta etimologiari buruzkoak ere (*Etim.*), gehienbat K. Mitxelenak berak prestatuak edo haren lanetatik aterak.

3. Gramatika hitzak

Gramatika-hitzei, hots, gramatika funtzioa —bakarrik edo neurri handi batean— duten hitzei, garrantzi handia eman zaie OEHN, aurreko hiztegietan baino handiagoa, gure ustez. Horrek buruhauste eta lan handiak ekarri ditu, corpuseko emaitzetatik adibideez hornitua izan behar zuelako ematen zen adiera bakoitza. Azken buruan, emaitza bikaina eman duen lan handia, kontuan harturik honelako hitzen erabilerari buruzko datu fidagarriak eskuartean edukitzeak duen balioa, bai hiztegiaren erabiltzaile soilentzat bai gramatika-rientzat.

4. OEHren argitaraldiak

Espezialistek, oro har, OEHren lehen liburukiei harrera ona egin zieten, zenbait kritika falta izan ez bazen ere, Rudolf P. G. de Rijk (1988) hizkuntzalari holandarrarena kasu. Hark hutsune handiak ikusi zituen corpusean, hiztegi historiko batentzat larrizat jo litekeen 1700 baino lehenagoko testuena, batez ere. Bestalde, Koldo Mitxelenaren idatzietatik ateratako adibideen falta deitoratzen zuen (hutsune honen arrazoia Mitxelenaren beraren apaltasuna izan zen, dudarik gabe). Martin Harrieten Gramatikaren bukaeran agertzen diren euskara-frantses eta frantses-euskara bi hiztegien falta ere seinlatu zuen. Izan ere, hiztegi hori garrantzi handikoa da bai filologiaren bai historiaren aldetik, bereziki Larramendiren lanaren iturrietako bat izan zela kontuan hartzen bada.

Kritika horiek aintzat hartuz, hirugarren liburukitik aurrera testu zahar batzuez osatu zen OEHren corpusa: Leizarragaren (1571) *Testamentu Berriaren* itzulpena osorik (aurretik, hitzaurre eta dotrina-liburuez gain, *Testamentu Berriko* kapituluaren izenburuak bakarrik sartu ziren); bizkaierazko *Egiaren*

Kanta (1638), Oihenarten *Atsotitzak* (1657). Baita berriago batzuk ere, hala nola *Eskualdun Kozinera* (1864), edo Azkueren *Bein da betiko* (1893) eta *Batxi Guzur* (1897).

Laugarrenetik aurrera gehitu ziren Etxeberriren *Manual debozinezkoaren* (1627) bigarren liburua eta *Elizara erabiltzeko liburua* (1636), Haranbururen *Debozino eskuarra* (1635), Tartasen *Onsa hilzeko bidia* (1666) eta *Arima penitentaren okupazione debotak* (1672) eta Harizmendiren *Ama Birjinaren Ofizioa* (1658). K. Mitxelenaren adibideak ere sistematikoki ematen hasi ginen.

Seigarren liburukitik aurrera sarreraren aipamenak arindu ziren. Ordura arte, besterik adierazten ez bazen, corpuseko autore bakoitzaren adibide bana, gutxienez, aipatzen zen. D letratik aurrera, adiera bakoitzaren bukaeran (*v. tbn.* laburduraren ondoren), adiera hori erabiltzen duten autoreen zerrenda ematen hasi ginen, liburua eta orrialdea seinalaturik. Horrela, hitz bat erabiltzen duten idazle guztien kontu emateko oinarritzko araua gordez, irakurleari hainbat adibide hutsal edo errepikakor irakurtzeko nekea kentzen zaio.

Horregatik, eta beste arrazoi batzuegatik, OEHren paperezko bertsioaren hasierako liburukietatik azkenekoetara bilakaera handia dago, bai formaren aldetik bai edukiaren aldetik. Ezinbestekoa, Hiztegiaren idazketa hoguei urtez luzatu zela gogoan hartzen bada. Nahiz eta hasieratik irizpide eta prozedura guztiak ongi finkaturik uzten saiatu, denboran zehar sortzen (edo ikusten) diren arazo berriak direla-eta, edo hiztegi gintzan urteetako ariketan harturiko eskarmentua dela-eta, hasierako eta bukaerako liburukien arteko aldea nabarmena izan da.

2005. urtean, azken liburukia kaleratu zenean, bigarren argitaraldi bat egitea erabaki zen; oraingoan euskarri informatikoan bakarrik (ez paperezkoan). Argitaraldi honen helburu nagusienetako bat Hiztegiaren hasierako zatia gerokoarekin berdintzea izan zen, eta lehen bost liburukiak aukeratu ziren berrikuspenetarako. Erabaki horren arrazoi nagusia seigarrenetik aurrera egituraren aldetik gertatu zen aldaketa handia izan zen, adibideen kopurua murrizteak ekarri zuen aldaketa. Berrikuspen horren adibide moduan, zenbait sarreratan egin ziren gehitze eta zuzenketa batzuk aipatuko ditugu:

- Lehen eta bigarren liburukiko sarrera batzuk (*ahal, aita, ama, handi*), eskema edo zirriborro moduan agertu zirenak,⁴ osorik garatu ziren bigarren argitaraldi honetan.
- Goian aipaturiko testuetako (Leizarraga, Haranburu etab.) adibideak sartu ziren lehen hiru liburukietan; bai eta arte horretan agertu zen Lazarragarenak ere liburuki guztietan.
- Aipamen gehiegi zeuzkaten sarrerak soildu ziren, autore guztien berri emateko araua gordetzeko *v. tbn.* atala erabiliz.

⁴ OEHren hitzaurreko «Advertencia previa» atalean eman zen horren berri.

2011. urtean sareratu zen bigarren argitaraldi honi, gehienbat lehen bost liburukiak aldatzen zituenari, hiztegi osora hedatzen zen hirugarren bat jarraiki zitzaion. Argitaraldi horretan, berrikuspenaren oinarri nagusiak adierei eta erabilerei zegozkien. Hala, adieren bereizketa zorrotzagoa egin zen, aurrez, filologia-aldeari gehiago begiraturik, egin ez zen hainbat hitzetan; bereizketa berri honi adibideak egokitu zitzaizkion, bai eta corpusetik hartutako berriak sartu ere. Bestalde, esapide, hitz elkartu eta kolokazio gehiago sartu ziren, azpisarrera moduan, adiera nagusien ondoren, horien hedadura, antzinatean eta erabilerari buruzko informazio fidagarria, hizkuntza estandarerako hain beharrezkoa dena, eskainiz.

Horrez gainera, jakina, Hiztegi aurkituriko era guztietako hutsen zuzentzeari ekin zitzaion. Hauek ezin itzurizkoak dira OEH bezalako hiztegi handian: inprimatzeko akatsak, erreferentzia hutsak, lekukotasunen irakurketa edo interpretazio okerrak...

Urte haietan aurkitu edo argitaratu ziren zenbait testutako adibideez ere aberastu zen OEH. Gehienak aldizkarietan agertutako testu zahar laburrak ziren, baina bazen haien artean ordura arte argitaragabea zen *Birjina* nobela ere, segur aski Duhalderena den XVIII. mendeko itzulpena.

2013an, laugarren argitaraldi baterako lanak hasi ziren. Horretan, aurrekoetan egin zirenen antzeko gehitze eta zuzenketez gainera, Auspoa bildumatik ateratako corpus bat (gehlenbat herri kutsuko testuez osatua) oinarri harturik, hitz, adiera eta adibide gehiago sartuko dira.

5. OEHren ekarpena

Ezin ukatuzkoa da OEHk azken urte hauetako euskal hizkuntzalaritzan, filologian, gramatikagintzan edo hiztegiagintzan izan duen eragina eta garrantzia. Gorago aipatu dugun bezala, azken urteetan Euskaltzaindiak argitaratu dituen gramatika-lanak edo *Hiztegi Batua*, esaterako, ezin uler daitezke OEHren bermerik gabe.

Aurrera begira ere, nola ez, lan serio eta fidagarriak egiteko ezinbesteko baliabidea izango da OEH, lan zehatz eta zorrotza egin nahi duen hizkuntzalari edo ikertzailearentzat bazterrerara ezin utzizko lanabesa. Filologoak hitzen historia eta garapenaren berri aski zehatza aurkituko du bertan, euskalkiz euskalki edo garaiz garai erakutsia; gramatikariak aditzen erregimenen, esamoldeen erabileren edo sintaxi egituren nondik norakoen deskribapen egokia jasoko du; hiztegiak hitzen aldaerak, erabileren maiztasunak eta beste hiztegiak batzuen lekukotasunak jasoko ditu; erabiltzaile soil denak kontsultagai duen hitzaren azalpen zabal eta hornitua irakurri ahal izango du.

Orain arte bezala, OEH gerora ere baliagarri eta erreferentziako lan izan dadin, lehenengo argitalpenetik honako bidean egin diren osatze eta zuzentze lanek izango dute aurrera ere jarraipena. Aurrerantzean ere OEHk izango

ditu argitalpen osatu eta hobetuak, dela azken urteetan argitaratu diren testu interesgarriak txertatuz, dela hizkera jakinetako hiztegi edo lan bereziak baliatuz, dela erabiltzaileen ohar eta iradokizunak aztertuz.

Aipamenak

- Añibarro, Pedro Antonio. c. 1800. *Voces Bascongadas*. [L. Villasante (arg.).1963. Bilbo].
- Arzamendi, Jesus. 1985. *Términos vascos en documentos medievales de los ss. XI-XVI*. Bilbo.
- Azkue, Resurrección María. 1893. *Bein da betiko*. [I. Pagola (arg.). 1986. Donostia]
- Azkue, Resurrección María. 1897. *Batxi Guzur*. [I. Pagola (arg.). 1986. Donostia].
- Azkue, Resurrección María. 1905-1906. *Diccionario Vasco-Español-Francés*. Bilbo.
- Birjinia edo donceil christaba*. 1783-1784. [J.A. Mujika (arg.). 2010. Bilbo].
- Duvoisin, Jean. (XIX. mende amaieran idatziriko hiztegiaren eskuizkribu argitaragabea).
- Egiaren Kanta*. c. 1638. [B. Urgell (arg.). ASJU 1986, 75-148].
- Etcheberri, Joannes. 1627. *Manual devotioezcoa*. [1669ko edizioaren faksimile argitalpena. Donostia 1978].
- Etcheberri, Joannes. 1636. *Eliçara erabiltceco liburua*. [2. argitalpena. 1665. Bordele].
- Euskaldun cocinera cenarekin nornahic cocina ona errechki eguin baitaçake*. 1864. Baiona.
- Euskaltzaindia. 1985-2011. *Euskal Gramatika: Lehen Urratsak* (EGLU I-VII). Bilbo: Euskaltzaindia.
- Euskaltzaindia. 2000. *Hiztegi Batua*. Bilbo: Euskaltzaindia. [<http://www.euskaltzaindia.net/hiztegitatua>].
- Euskaltzaindia. 2012. *Euskaltzaindiaren Hiztegia*. Bilbo: Euskaltzaindia.
- Haramburu, Jean. 1635. *Debocino escuarra, miraila eta oracinotegua*. Bordele.
- Harizmendi, Cristobal. 1658. *Ama Virginaren Officio*. Bordele.
- Harriet, Martin. 1741. *Gramatica escuaraz eta francesez*. Baiona.
- Harriet, Maurice (XIX. mende amaieran idatziriko hiztegiaren eskuizkribu argitaragabea).
- Landucci, Nicolao. 1562. *Dictionarium Linguae Cantabrigiae*. [M. Agud eta L. Mitxelena (arg.).1958. Donostia].
- Larramendi, Manuel. 1745. *Diccionario Trilingüe del Castellano*, Bascuence y Latín. Donostia.
- Leizarraga, Joannes. 1571. *Iesus Christ Gure Iaunaren Testamentu Berria*. Arroxela. [Faksimile argitalpena. 1979. Donostia].
- Mitxelena, Luis. 1964. *Textos Arcaicos Vascos*. Madrid: Minotauro.
- Mitxelena, Luis & Ibon Sarasola. 1987-2005. *Orotariko Euskal Hiztegia*. Bilbo: Euskaltzaindia. [<http://www.euskaltzaindia.net/oeh>].
- Oihenart, Arnauld. 1657. *Les Proverbes basques, recuellis par le Sr. D'Oihenart, plus les poésies Basques du mesme Auteur*. Paris. [Faksimile argitalpena. 1935. RIEV, 201-264, 665-728].
- Pouvreau, Sivain. c. 1675. (Hiztegiaren eskuizkribu argitaragabea).

- de Rijk, Rudolf P.G. 1988.«How reliable and comprehensive is the DGV?», *ASJU* XXII-2, 695-700.
- Sarasola, Ibon. 1983. «Contribución al estudio y edición de textos antiguos vascos». *ASJU* XVII, 69-212.
- Sota, Manuel de, Pierre Lafitte & Lino de Akesolo. 1976-1991. *Diccionario Retana de autoridades de la lengua vasca*. Bilbao: Editorial La Gran Enciclopedia Vasca - D. Amaia (10 bol.) («Biblioteca de La Gran Enciclopedia Vasca»).
- Tartas, Jean. 1666. *Oña hilceco bidia*. Orthez.
- Tartas, Jean. 1672. *Arima penitentaren occupatione devotaq*. Orthez.
- Urte, Pierre. 1725. *Pierre d'Urteren hiztegia*. [P. Urkizu (arg.). 1989. Donostia].